

457 zenbakia, 2001eko ekainaren 22a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

Jose Mari Etxaniz kalean

Berriketan: Jose Angel Mikeo | **Txirrindularitza:** Kepa Varela kadeteetako Gipuzkoako txapeldun

ALMERA SEDAN. BERDIN DIO NORA ZOAZEN. EZ ZARA AUTOTIK JAITSIKO.



Stock-ean dauden autoentzat eskaintza bereziak.
500.000 pezetako finantzaketa 6 hilabetera %0an.



1.5, 1.8 eta 2.2. Di motorrak.
2.000.000 pezetatik aurrera (Prever plana barne).

SEE THE CHANGE

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGARIK GABE



ALDIBI AUTOAK, S.A.
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.
aldibi@nortekar.com





Iratxoen mendekua

Iñigo Iñurrategi

Aspaldian jai daukagu ingurumena maite eta jagoteko grina mantentzen dugunok. Ez da erraza XXI. mendearen erroberatik irtetea. Aitzitik, errobera hori berori handiago eta zanpariagi bihur dadin laguntzen dihardugu egunetik egunera, eta zer egin handirik ez daukagunaren sentsazio koldarra maitzen ari zait barrenean.

Agintea gauzatzen den bulego horietako batean kalkulagailua lagun hartutako erabakiak, erabaki hori plano bihurtuko duen teknikariz jantzitako beste bulego batetik pasatu, eta azkenik makinek kalkulagailuaren azken eragiketa gauzatu dute, emaitza harri eta lurrezkoa delarik. Bata bestearen atzetik datozkigu karreterak, autobideak, trenbideak, haize errotrak, ubideak, urtegiak, etxadiak... Zail egiten zaigu urteetan geure sentitu dugun paisaia denbora tarte labur batean bestelako bihurtzea, baina geure burua kontsolatu nahiz edo, egoera berriaren beharra eta abantailak asmatu nahian hasten gara... eta barrenak traizio egiten ari naizela diost.

Hauek guztiak buruan nituela joan nintzen asteburuan mendi bueltatxo bat egitera, eta hasiera batean behintzat ez nion erremedio handiegirik aurkitu nire

moskeoari, mendian inoiz baino motor eta "todo-terreno" gehiago ikustea tokatu baitzitzaidan. Asteburuak eta eguraldiak bazuten horren errurik, baina errurik handiena inguruko parke eoliko batek dauka, bertara joateko sekulako pista ireki baitute (inongo kontrolik gabekoa), eta berau bukatzen denean basapiztia motordunek aurrera jarraitzen dute, pistaz kanpo, inguruko beste pista bat aurkitu arte. Gizakia zenbaterainoko kaikua den konprobatu nahi baduzue, joan zaitetze Mugarriluzera, eta bertan ikusiko duzue nola bat-batean lau bide ezberdin sortu diren, malda guztia txikituz, goiko zutarriaren alde bietatik iragaten direlarik todo-terrenodun balienteak, eta Alabita-kotumulia, lehen ere alde batetik ikututa bazegoen, orain beste aldetik zulatzen

«Karreterak, autobideak, trenbideak, haize errotrak, urtegiak, etxadiak... Zail egiten zaigu geure sentitu dugun paisaia denbora tarte labur batean bestelako bihurtzea»

ari direlarik. Homo Horribilis.

Izan zuen, ordea, barruan daramadan iratxoak pozteko arrazoirik, ia sinboliko ez bada ere. Larunbat arratsalde, diskotekarako piurekin, hiru gazte hitz erdirik esan gabe albotik pasa zitzaizkigun amatxoren edo aitatxoren todo-terreno distiratsuan, "elea" jarri eta tramankulua frogatzera, nonbait. Albotik pasa zirenean neure artean pentsatu eta desiatu nituenak ez zituzten beraiek entzun, baina bai beste norbaitek edo zerbaitek, eta 50 metro aurrerago han geratu zen tramankulu ditzosozkoa ez atzera eta ez aurrera lokatza artean sartuta... Mendekua bete zen. Gaizto xamarra berez izaki, laguntzera joan eta gure pertsonaia motorizatuaren aurpegia ikustearekin bat irrifarreari eutsi ezinik izan nintzen. Gurasoen gurdia ez atzera ez aurrera, Nokia koloretsua kobertura badaezpadakoarekin, aseguru etxeak errepidez kanpo ez zuela laguntzen, eta Ertzaintzak laguntzeko gogo gutxi, gaua gainean... Azkenean hamahiru lagun artean eta izerdi dezente bota eta gero lortu genuen ateratzea, eta gure hiru lagunek izan zuten afaltzeko amatxoren ondora bueltatzerik, baina hori bai, zati batean ez dira berriz horrelako abenturatan sartuko...<

barruan



J. Angel Mikeo

Mundukideko idazkaria

«Garapen propiorako gutxieneko baldintzak garatu nahi ditugu Mozanbiken»

6.



Jose Mari Etxaniz

Preso ohia

«Kartzelak pertsonak suntsitzeko eginda daude, eta ez bergizarteratzeko»

14.



Angel Ribera

Arrasate Atletiko taldekoa

«Espainiako txapelketarako sailkatzeko 11,20 egin behar dut 100 metrotan»

17.

hi, gazte!



BEKAK

Surfeko kirol-materiala euskaratzeko bekak. Urola Kostaldeko Udai Elkarte. Epea: uztailak 13.

Nekazaritza eta Arrantza.

Eusko Jaurilaritza. Nekazaritza eta Arrantza Saia. Nekazaritza eta Arrantza Zientziekin edo Naturarekin lotutako arloetako Lizentziatura, Ingeniaritza edo Lanbide Heziketa. Natur ingurunearen azterketarako zentroetan praktikak egiteko 10 beka. Epea: uztailak 5.

IKASTAROAK

Telebista. IVIM. Interpretazio, errealizazio, bikoizketa eta gidoi kurtsoak. Epea: Uztailak 5.

Arte ikastaroak. Debako arte eskola. Uztailerako ikastaroak: Kalkografiako grabatueta hastapen ikastaroa, marmolezko eskultura, egurrezko tailerra, zeramikari hasteko ikastaroa. Epea: ekainak 26.

SARIAK

Argazkia. Jabetza Hiritarreko Gipuzkoako Ganbera. "Habitata eta hirigintza Gipuzkoan" gaiaren inguruko argazki-lehiaketa. Epea: Abuztuak 31.

5. CD lehiaketa. Gaztemaniak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Editatu gabeko diskoak edo aurretik sarituak izan ez diren diskoak sortu dituzten talde edo bakarlariek. Maketen lehiaketa. Epe luzeak: uztailak 14ra arte.

Musika. Pozoblancoko Udala. Kontratu diskografiko gabeko pop-rock taldeak. 3 abestiko maketa eta dossierra. XI Pop-Zoblanco maketa lehiaketa. Epea: ekainak 30.

LANA

Ingurumen-zerbitzuko zamaketaria. Deba Garaiko Mankomunitatea. Eskola-zurtagiria. Lan-jardunaren % 41,58rako kontratatatzeko oposizio-lehiaketa. Epea: ekainak 25.

Administrari-ofiziala. Barañaingo Udala. Batxilergoa, LH II edo baliokidea. Epea: ekainak 25.

KARNETAK

Nazioarteko AterpeKide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.


INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefona: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. **Mila esker.**

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Bidebueltia

Bihurgunea (bidekoa, ez kaminokoa; kaminokoa, errebuelta).

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Ekainak 14, eguena	28 °C	11 °C	- 1/m ²
Ekainak 15, egubakoitza	24 °C	14 °C	1,0 1/m ²
Ekainak 16, zapatua	20 °C	10 °C	- 1/m ²
Ekainak 17, domeka	17 °C	12 °C	0,9 1/m ²
Ekainak 18, astelehena	21 °C	8 °C	- 1/m ²
Ekainak 19, martitzena	28 °C	6 °C	- 1/m ²
Ekainak 20, eguaztena	34 °C	8 °C	- 1/m ²

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak
Lanegunak: 19:30.

Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu
Domekak: 10:30.

Ubera
Domekak: 10:30.

San Juan
Domekak: 11:00.

San Prudentzio
Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUBAKOITZA 22:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA 23:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA 24:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA 25:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA 26:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA 27:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA 28:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

OGIA

DOMEKA 24. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda). 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza. 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak. 943 76 20 51
Kultur Etxea. 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa. 943 76 13 15
Jardun. 943 76 36 61
Idolaz. 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notaritza. 943 76 10 73

oharrak

■ **Udalaren oharra:**

Gipuzkoako itzulia dela eta, astelehenean BCHtik Seminarioko patiora dagoen tarteak kotxez libre utzi beharko da 16:00etatik aurrera. Baita Bideberri eta Eroski pareko hainbat gune ere. 18:15etik 18:45era trafikoa moztu eta desbideratu egingo da hainbat gunetan.

■ **1971an jaio** eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen afaria uztailaren 14an Angiozarko Ortzí jatetxean, 21:30ean. Izena ematea (3.000 pezeta) uztailaren 10era arte zabalik Simon Arrietako Kutxan.

■ **Odol ateraldia** hilaren 27an Seminarioko lokalean, 18:30ean.

■ **San Martzial** egunerako, Bai Euskal Herriari plataformak kamisetak aterako ditu. Hilaren 22an, 23an eta 30ean San Martin plazan salgai.

■ **EHE.** Ekainaren 23an Gasteizen ofizialtasunaren aldeko manifestaziorako auto karabana Frontoitik, 15:30ean.

■ **Bedelkarren** eskutik, Musika Eskolako txistulariak gaur, hilak 22, arratsaldez kaleetan.

■ **Jose Mari Etxaniz eta Luis Etxeberria** preso ohien omenezko afaria zapatuan, hilak 23, Udal Pilotalekuan, 21:00etan. 19:00etan, presoen eskubideen aldeko ekitaldia plazan. Afarirako txartelak ohiko tokietan.

zorionak!



Leire Merino
25ean urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ion Sarasketa
23an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Mikel Rodriguez
23an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Lierni Azpeitia
28an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Belen Pelicano
27an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Olatz Ugarte
24an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Sara Manzano
28an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maialen Perez
22an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta
Jon Ander.



Jone Olabarria
24an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ion Durana
22an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Inazio Arriola
23an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Asier.



Julen Urtaza
25ean 5 urte.
Urte askotarako!
Amama eta izebak.



Maite Alberdi
25ean 6 urte.
Urte askotarako eta
muhu handi bat!
Etxekoak.



Aitor Gallastegi
22an urtebete.
Zorionak eta muxu
bat! Familiakoak eta,
batez ere, Amaia.



Nahia Cotillas
28an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Jon.



Leire Anbroi
23an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Amama eta
gurasoak.

jardunen agenda

■ **Koadrillategi egitasmorako dinamizatzaileak:**

Baldintzak: 20 urte beteta izatea, Bergaran edo inguruan bizitzea, euskara menperatzea. Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Soziologia, Magisteritza ikasketak burutzen bazaude edota gazteekin aisialdian lan egitea nahi baduzu, bidali Curriculumuma Jardunera: Jardun Elkarte, Juan Irazabal z/g (Kartzela Zaharra) 20570 Bergara. Informazioa: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61.

*Hurrengo alean,
ekainaren 29tik
uztailaren 5a
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Ur-bide
ITURGINTZA
Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

EDEL
TAPIZDENDA
*Etxerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*
**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.**
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

Bolu
liburutegia
Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikulua
Bergarako oleo eta
lumaxoak
Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

Maiatzaren 21etik ekainaren 8ra Mozambiken izan da Jose Angel Mikeo. Mundukide Fundazioako idazkaria dugu eta Marrupa distritoan izan da fundazioak han duen proiektu bat dela eta.

G. Mozambiken izan zara duela gutxi.

E. Bai. Mundukide Fundazioak bere lan ildo baten proiektu nagusia du han; eskualde garapen integrala, hain justu ere. Eta hori garatu nahi dugunez, han izan naiz, Niassa probintziako Marrupa distritoan.

Proiektuak hainbat fase ditu, eta momentuz lehen fasean gaude, identifikazio fasean. Eta horretarako joan gara. Identifikazio lan horretan, datozen hiru urteetarako lan ildo nagusiak zein izango diren zehaztera.

G. Zertan datza garapen integraleko programak?

E. Integrala den neurrian, hango behar guztiak hartzen ditugu kontuan. Ez dugu munduan sakabanatutako proiektu solteak aurrera eraman nahi izan. Kooperazio modu horretatik aldendu nahi izan dugu. Mundukideren filosofiaren arabera, eraginkorrak izateko, indarrak leku bakar batean jarri behar dira. Eta eraginkorrak izateko, toki horretako behar guztiak kontuan hartu behar dira gure ustez. Gero, hainbat urtetan jarraipena eginez, garapen propio baterako gutxieneko baldintzak bermatzea lortu arte. Eta, noski, bertako biztanleak izan arte, jarraipena emango diotenak garapen horri guztiari.

Behar guztiak kontuan hartzen direla esatean, osasuna, irakaskuntza eta komunikazioa ditugu batetik. Horiek bestelako laguntzen bidez egingo ditugu.

Bestetik, aktibazio eko-

JOSE ANGEL MIKEO

Mundukide Fundazioako idazkari teknikoa

«Garapen propiorako baldintzak bermatu nahi ditugu Mozambiken»



Besteak beste, Jardun elkarteko presidente ere izan da Jose Angel Mikeo.

nomikoari dagokiona dugu. Marrupa distritoan nekazariak dira, batez ere, eta oso maila apaleko nekazaritza jorratzen dute.

Horrela, aktibazio ekonomikoarekin, nekazaritza teknika berriak erakutsi nahi dizkiegu, horren ondoren komertzializazio bideak ezartzera heltzen garen arte.

Honetan guztian, gure

«Fundazioan argi geneukan Afrikara joan behar genuela. Utzita dagoen herrialde bat da; ez du ezer ez erosteko, ezta saltzeko ere»

aportazio nagusia ahalmen horiek sortzera joatea da. Bertako jendea ahalmen eta behar horiek asumitzen joan dadila nahi dugu.

G. Gehiago da, beraz, hangoekin elkarlanean egingo duzuen proiektua.

E. Bai, hango jendearekin identifikatu eta zein behar dituzten jakin nahi izan dugu lehenengo. Gero prozesu luze horren ondorioz eurak izan daitezten beharrei erantzuna emango dietenak.

G. Zein behar dituztela adierazi dizuzete?

E. Nekazaritzarekin, jatearekin, hezkuntzarekin lotuta daudenak. Baita diru sarrerarekin ere. Izan ere, nekazaritza erdi nomada batean oinarritutako bizimodua dute, kanpokoekin harreman gutxi dute eta diru sarrerak oso mugatuak dira.

G. Zergatik aukeratu zenuen Mozambique proiektua martxan jartzeko?

E. Argi geneukan hasieratik Afrikako herrialde batean izan behar zuela. Utzita dagoen kontinente bat da, eta ez du ia ezer, ez erosteko ezta saltzeko ere ekonomia berri interesgarria izan daitekeenik; munduko harreman ekonomikoetatik kanpora geratu den kontinentea da. Bestalde, Afrika barruan zein herrialdetara joan erabakitzeko orduan, beste erakunde batzuekin jarri ginen harremanetan. Horietako bat Intermon izan zen, eta horren bidez Afrikan identifikazio lana egin genuen. Izan ere, hainbat baldintza ere bete behar zituen herrialdeak. Ezin zen, esaterako, gerrarik egon. Bizpahiru herrialdetan pentsatu genuen, eta azkenik Mozambiqueko zonalderik pobreena aukeratu genuen, Niassa probintziako Marrupa distritoan, hain justu.

Elosuko elizaren estalkia berrituta, gotzainak inauguratuko du domekan

Abadetxea ere berritu egin dute 70 bat lagunek, asteburuetan, auzolanean

Abuztuan hasi ziren Elosuko San Andres de Iraun elizaren estalkia konpontzen. Dagoeneko lanak amaituta, Uriarte gotzainak bedeinkatu egingo du domekan. Abadetxea ere konpondu berri dute hainbat pertsonak auzolanean. Hala ere, eliza osoa berritzeko, kanpandorrea eta elizataria konpontzea geratzen da.

Elosuko San Andres de Iraun elizaren estalkia konpontzeko lanak amaitu dituzte dagoeneko. Hori dela eta, inaugurazio ekitaldi gisa, Gipuzkoako gotzainak, Juan Maria Uriartek, meza emango du datorren domekan, ekainak 24, Elosun. Meza 12:30ean izango da, eta ondoren auzotarrendako luntxa egingo da.

Abuztuan hasi ziren elizako estalkia konpontzen. Abadetxea, eliza eta eliza ataria; hiru gune horiek baten ditu estalkiak, eta konponketek 20 milioiko aurrekontua izan dute. Diputazioa (%70), Gotzaitgia eta Bergara eta Azkoitiko Udalak egin dira kargu.



Estalkia eta abadetxea konpondu dituzte. Kanpandorrea eta elizataria konpontzeko daude, oraindik.

ARTXIBOA

ABADETXE GUZTIZ BERRIA

Estalkiarenak, baina, ez dira San Andres de Iraun elizan egin diren lan bakarrak. Abadetxeari dagokionez, guztiz berritu dute. Hirurogeita hamar bat lagun inguruk, hainbat hilabetetan zehar asteburuetan elkartu, eta abadetxea konpontzeari ekin diote auzolanean. Xabier Azkoitia apaizaren arabera, elektrizitate eta aroztegi lana baino ez dute ordaindu behar izan.

Abadetxeak aisialdigune bezala funtzionatzen du aspalditik. Ikastetxe zein hainbat elkartek neska-mutikoeekin egun batzuk pasatzeko erabiltzen dute. Horrela, aipatutako berritze lanak auzolanean eginda, kostua murriztea lortu dute, eta ondorioz, abadetxearen alokairua nahiko merkea da.

KONPONKETA GEHIAGO

Hainbat lan egin dituzten arren, kanpandorrea eta eli-

zataria ere konpontzeko daude San Andres de Iraun elizan. Kanpandorreari dagokionez, hainbat harri tokitik kanpo daude eta sendotu beharra dago. Konponketetarako proiektua eginda dago, baina Diputazioa eta udalek ez dute oraindik dirulaguntzarik onartu. Xabier Azkoitiaren arabera, baina, begi onez ikusi dute proiektua. Aurrekontua 27 milioi pezetakoa da.

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57



Kruz Gallastegi, 1. 943 76 54 69



Diputazioaren babespean dauden haurrak familietan hartzeko kanpaina

Beroa elkarteak Aldundiaren babespean dauden adin txikikoendako familia harrerak lortzeko kanpaina jarri du martxan. Helburua, familiek adin txikikoak aldi baterako hartuz, horiek zaindu, elikatu eta heztea da. Horrela, haurraren familiaren osagarri bihurtuz.

Familia harreraren ezauzgarriak bi dira: batetik, aldi baterako izatea; izan ere, azken helburua adin txikikoa bere etxera itzultzea da, bere familiak izan dituen arazoak gainditu ondoren. Eta bestetik, bere familiarekin harremanetan egotea bisiten bidez. Diputazioa da adin txikikoak babesteko ardura duena, eta bera, epaitegiari jarraituz, bisitak erregulatzen dituena, batez ere, adingabeari zer komeni zaion ikusi ondoren.



Kanpainaren oinarria, haurrak familian hartzea da, ez adoptatu nahi izatea.

BI HARRERA MOTA

Adin txikiko bakoitzak dituen behar berezien arabera bi harrera mota dago: familia harrera soila eta iraunkorra. Lehenengoan umea jasotzen duen familia edo pertsonak adin txikikoaren familiaren zeregina beteko du. Harrerak, baina, ez du

izan behar bi urte baino gehiagorako. Bigarreanean, umea pertsona edo familia batekin jarriko da bizitzen, baina aurrez ezingo da zehaztu zenbat denborarako. Ziurrenik bi urte baino gehiagorako izango da.

Har daitezkeen adin txikikoek familia giro egokirik

ez dute. Bestalde, egoera horretan daudenak umeak, nerabeak, gazteak eta anai-arrebak izan daitezke. Eta afektibitatez ez dutenak, ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialak, eta batzuetan ondo portatzeko zailtasunak dituztenak ere bai.

NOR IZAN DAITEKE HARTZAILE?

Besteak beste, baldintza hauek bete behar dira: familiako guztiek ados egon behar dute harrerarekin; helburua harrera da, ez adopzioa; haurra den bezala onartzeko prest egon behar da; oinarrian ez da gurasotasun nahia asetzera egon behar, eta prestakuntza saioa egiteko prest egon behar da. Interesatuak Beroa elkartera deitu beharko dute: 943 48 25 94.

Zuber SA enpresako langileek greba utzi dute

Ekainaren 13an muga gabeko grebari ekin zioten Zuber SAko langileek, zuzendaritzarekin hainbat ezadostasun zirela medio.

Lau egun greban izan ondoren, joan den martitzenean akordioa lortu zuten bi aldeek, eta horren ondorioz, langileek greba eten

egin dute.

Akordioak datorren urteko amaiera arte iraungo du, eta besteak beste honako puntu hauek batzen ditu: lan orduei dagokienez, aurten 15 ordu jaitsiko da urteko ordu kopurua, eta beste horrenbeste datorren urtean. Soldataren kasuan,

aurten soldata erreala %5 igoko du zuzendaritzak, eta hoge mila pezetako osagarria ere izango dute langileek hamalau ordainketetan. 2001 urteari begira, soldatak KPI gehi puntu bat igoko dituzte. Bajen kasuan, lan istripu eta lan gaixotasunak eragindakoak badira, %100

ordainduko dituzte, lehenengo egunetik. Bestalde, ordu estrei dagokienez, Lan Erregulazio Batzordearen esanak beteko dira.

Goian aipatutako puntuak adostuta, martitzenean, ekainak 19, sinatu zuten langileek eta enpresako zuzendaritzak akordioa.

ile apaindegia
edertze gela

disdira

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02



Bolatokiaren estalkia konpontzeko lanak Kofraixetarako egingo dira.

Osintxu auzoan bolatokia konponduko dute

Bolatokia konponduko du udalak Osintxu auzoan. Erabakia asteleheneko Gobernu batzordean hartu zuten. Bolatokiaren estalkia da konponduko dutena. Izan ere, estalkiaren habe nagusietako bat egoera kaskarrean dago. Hori dela eta, estalkia guztiz konpondu behariko dute, beste haberen bat ere ustelduta egon baitaiteke.

Osintxuko bolatokiaren konponketa lanak lehiaketa bidez esleituko ditu udalak, hiru milioi pezeta inguruan.

Lanak noiz hasiko diren zehazterik ez dagoen arren, abuztu amaierarako konponduta egotea nahi du udalak. Izan ere, data horretan Osintxuko jaiak ospatzen dira, Kofraixak, hain justu ere, eta ordurako bolatokia berriztuta egotea komeni dela uste dute udal arduradunek.

Bolatokiaren estalkiko lanak egiteko baldintzen plegua ez dute oraindik lehiaketa publikora atera, baina datozen egunotan kailean izango dira.

San Martzial egunerako urbanoa egongo da

Aurten ere, urbanoa jarriko du udalak San Martzial egunean, uztailek 1, bertara igotzeko. Goizeko 10:30ean Mizpirualdeko edadetuak igoko ditu. Gainerako herri-terrendako zerbitzua 15:00-etan hasiko da, eta beste ibilgailuendako itxita geratuko da bidea (zama-laneta-

rakoendako izan ezik). Santa Marina atzean hartu behariko da urbanoa eta San Martzial sarreraraino helduko da. Bestalde, San Martzialen egon daitezkeen ibilgailuek Surratik jaitsi behariko dute. Kantina eta txosnaren kasuan, Senideak eta AABk kudeatuko dituzte.

Udako ikastaro trinkoak

Uztailaren 3tik 28ra

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autocad
- Programazio informatika
- Ingeles multimedia
- Kontabilitate gestioa
- Giza baliabideen administrazioa
- Zergen gestioa
- Ekipo Informatikoen mantentze eta konponketa
- Musika informatika: MIDI sistema
- Enpresaritza eta ingeniari-tza (baita abuztuan eta irailean ere)
- Laguntza eskolak

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba etorbidea 3, 1.a • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 35 33 • Faxe: 943 79 06 28
bastida@bastida.es

Berrigara

457 zenbakia.
2001eko ekainaren 22a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzea: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberebizar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Juan Martin Elexpuru, Arantazu Oregi, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.500 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Badakizu jatorrixa nun daukan San Juan jaixetako ospakizunak?



Isabel Igartua

Ezta idearik be. Lehen gure kalian sua eitten giñuan, baiña nundik datozen ez dakitt. Sorgiñak uxatzeko edo ei die.



Santiago Larrañaga

Ez dakitt. Sua, eta kukañak eta... eitten diela badakitt, baiña zergatixa ez.



Itziar Garcia

Idearik be ez daukat. Sua eitten da, baiña ez dakitt zergaittik.



Cristobal Ruiz de Eginio

Jatorrixa ez. Antziñakua dala bai, baina jatorrixa ez. San Juan udako solstizioa da, suak eitten dia... Horixe dakitt.



Juana Lurdes

Ez dakitt. Baiña hemen San Juanik badago ala? Nik suak ezagutzen dittut. Ez naiz hemengua, baiña poligono aldian eitten dittuzte.



Marikontxi Elkoro



Basarrixan kantau eitten giñuan, baiña ez dakitt zegaittik. Zapuak eta sugak erretzeko eta artua eta garixa gordetzeko esaten giñuan.

tira biraka alex ugalde

Lilith bailara osoan zen ezaguna erdi-itsua zelako. Hori aprobetxatuz, Pierre hudo maltzurak arrautzak kendu eta bi begi jarri zizkion haien lekuan.



Lilithek begiak txitatzen jarriatu zuen, eta egun batean...



adituen esanetan

Txakurrak udan

Uda partean Mediterraneo aldera edo hegoaldera oportetara eramaten ditugun txakurrekin arazoak sortzen dira zenbaitetan. Ohikoak ez badira ere, urtero *Leishmaniosi* eta *Filariosi* kasuren bat edo beste dago. Biak ere eltxo baten (*Phlebotomus*) pikatadaren bitartez transmititzen dira.

Leishmaniosi-aren kasuan, eltxoaren pikatadaren ondorioz, parasito bat sartzen da odolean eta horrek gibela, barea, giltzurrunak, begia edota azalarengan eragina izan dezake.

Sintomak argiak dira: txakurrak ez dauka jateko gogorik, ezta jolaserako edo korrika egiteko ere. Era berean, azalean lesioak azaltzen dira. Bestalde, azkazalak asko hazten zaizkie txakurrei eta barea, gibela eta gongoilak ere handitu egiten dira. Begietan ultzerak ere ager daitezke, artikulazioetan artritis-a eta giltzurrunetan ere lesioak izaten dira.

Leishmaniosi-a sendaezina da eta ez dago tratamendu sendagarririk, txa-



ROMAN LAZPIUR

Albeitaria

«Udan oportetara eramaten ditugun txakurrekin, eltxo baten erruz, Leishmaniosi eta Filariosi kasuak agertzen dira»

dizkio eta zizareek sortzen duten antigorputzek giltzurrunei eta birikiei eragiten diete. Horrelakoetan sintomak hauek dira: txakurra berehala nekatzen da, flakatu egiten da asko eta ondoezik jartzen da. Dena den, tratamendua eraginkorra eta sendagarria da, beti ere larritasunaren arabera. Baina prebenitzeko onena izaten da txakurrari pastilla batzuk ematea oportetara joan aurretiko hilabeteetan, eta baita etorri eta handik hilabetera ere.

kurrak gaixo kronikoak bihurtzen baitira. Prebentzioari dagokionez, eltxoa uxatzeko produktuak erabiltzea da egokiena. Bestalde, esan behar da hainbat kasutan gizakiarengana transmititu daitekeen gaixotasuna dela.

Filariosi-a modu berean transmititzen da, baina kasu honetan gizakiarengana ezin daiteke transmititu. Eltxoaren pikatadarekin animaliarenean odolean har larbak sartzen dira, gero zizareak bilakatzaren direnak hain zuzen. Honek txakurrari bihotz arazoak sortzen

bergarako zuhaitzak



Hagina, Burdifiñaten.

Hagina

Taxus baccata

Hagina, konifero artean, pozortsua eta erretxina ez duen bakarra da. Oso poliki hazi arren, 20m har dezake hosto iraunkorreko zuhaitz honek, zurtoina lodia du eta azala zerrendatan askatzen da. Neguaren bukaeran edo udaberri hasieran lotatzen da, eta fruituak udazken aldera heltzen dira.

Gipuzkoako armarrarian agertzen diren hiru zuhaitzak haginak dira, eta Errotalde parkean ikus dezakegu espezie honen ale ikusgarri bat.

Itzaletan haz daiteke eta aldi berean, sikatea, kutsadura atmosferikoa eta inausketak ondo toleratzen ditu eta nahi den forma eman ahal zaio; arrazoi horregatik, heskai bezala oso estimatua da eta lorezaintzarako hainbat barietate atera dira. Barietate gehienek hazkunde geldoa izan arren, batez ere lehenengo etapetan, bizitza luzea dute.

Zuhaitz honen inguruan hainbat kontakizun eta sinesmen daude, honela Euskal Herriko mitologiari oso lotuta dago, eta aldi berean gure latitudeetan urte gehien bizi daitekeen zuhaitza da.

Gaur egun, haginek ez dute basorik eratzen, eta euren bizilekua asko murriztu da. Egur gogorra, iraunkorra eta trinkoa du; antzina arkuak, eraikinak eta hesiak egiteko erabiltzen zuten. Gaur egun, ebanisterian eta tonerian oso preziatua da eta hau izan daiteke bere itzuleraren arrazoia.

Orain dela gutxi, haginak azalean kantitate txikian duen taxol izeneko sustantzia sintetizatu da; sustantzia horrek zelulen dibisio anomaloa inhibitzen du, eta horrela minbiziari aurre egiten dio.

Testua: Maitane Arizabaleta.



Leishmaniosi eta *filariosi* prebenitzeko eltxoak uxatzeko produktuak erabiltzea gomendatzen da.

Otabak Elosun

Joan zen asteburuan **Otabak** ospatu zituzten Elosun. Egubakoitzean hasi zituzten jaiak, eta astelehenera arte hainbat ekitaldi egon zen. Besteak beste, egubakoitz gauean **bertso afaria egin zuten Agirre eta Irazurekin**, eta **Lutxurdio eta Aitziber** soinu jotzaileekin. Domekan trikitilariak, meza, pailazoak eta herri kirolak egon ziren. Astelehenean, berriz, argazkian ikus daitekeen moduan, majo ibili ziren auzotarrak Elurmendi elkartearen egin zuten bazkarian!



Emakumeen eskulanak

Kultura Etxean dago erakusketa joan zen eguenetik, eta datorren domekara arte, hilak 24, egongo da ikusgai. Denetarik dago: era guztietako altzariak, jolasak, koadroak... **Udalak eta Jardunek** antolatutako eskulan ikastaroetan herriko emakumeek egindakoak guztiak. Denera, 25 bat emakumek egindako eskulanak daude ikusgai.

Pertxakoak Errioxan

Or-Konpon taldeak garai batean egiten zuen moduan, joan zen zapatuan, hilak 16, **Errioxara** joan ziren **Pertxako hainbat bazkide eta beste herritar batzuk**. Or-Konponen ohiturari jarraituz, goizeko 8:15ean bandako kideez osatutako txaranga baten laguntzarekin egin zuten musika eskolatik autobuserako bidea. Gero, frontoi aurrean autobusa hartu, eta Errioxara. Navaridasen hamaiketako egin eta bodega bat ikustera joan ziren. Paganosen bazkaldu zuten. Egun konpletoa, duda barik!



ESTEBAN GARMENDIA

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

ANCEPE

ANCEPEK
homologatutako
diploma

Ile apaintze eta estetika zentruak
Kalitatezko irakaskuntza

MATRIKULA ZABALIK

DAMKAR'T
Eibar. 943 12 15 18

**Bergarako
Igerilekuetako
masaje,
solarium eta sauna
zerbitzua**

TELEFONO BERRIA:

943 76 02 03

ATARI

Zure auzo elkarteko, etxebizitza eta
garajeko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxa 943 76 38 41

NEREA ATORRASAGASTI



oleo-erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado **Telefonoa:** 943 76 03 97 **Faxa:** 943 76 29 77.

Antzuolako hamabostekaria, 81. zenbakia. 2001eko ekainaren 22a.

Gizarte Etxea ikusgai bihartik

Proiektuaren erakusketa egingo dute udaletxean bihar eta etzi

Martxoaren 1eko osoko bilkuran onartu zuten Gizarte Etxea izango denaren behin betiko proiektua. Orain, guraso elkartearen egoitzan proiektu hori gauzatzeko lanak esleitzeko prozesuan murgilduta dago udala. Bien bitartean, herritarrei proiektuaren berri emango die udalak, eta horretarako planoen erakusketa antolatu dute oraingo astebururako.

Zapatuan eta domekan Gizarte Etxea izango denaren planoak udaletxeko osoko bilkuren aretoan egongo dira ikusgai. Ināki Berasategi arkitekto bergararrak egin zuen proiektua, eta martxoeko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak proiektu hori. Orain, lanak egingo dituen enpresa baten bila dihardu udalak, baina ez ei da hain erraza. Izan ere, enpresa guztiak lan ez lepo dabilta, eta lanak egiteko lehiaketarako deialdia eginda dagoen arren, ezin dute topatu lanok egingo dituen enpresarik. Hala ere, uda ostean lanekin hasteko moduan egongo direla espero dute udal arduradunek.

PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA

Gizarte Etxea izango denaren proiektua oso-osorik egongo da ikusgai asteburuan. Izango dituen sei solairuen planoak osoko bilkuren aretoan jarriko dituzte, eta udaleko arduradunak ere hantxe egongo dira, galderei erantzun eta eskatzen dutenei azalpenak eman ahal izateko.

Guraso elkartearen eraikinean egingo dute Gizarte Etxea, eta esan bezala, sei solairu izango ditu, sotoa eta beheko solairua barne.



Plaza gorritik ere sarrera bat egingo dute Gizarte Etxerako.


Sotoan, biltegiak, instalazio elektrikoak eta aldagelak egingo dituzte. Beheko solairuan, gaur egun liburutegia dagoen solairuan, hain justu, gaztetxea, gimnasioa eta bilera gelak egingo dituzte, besteak beste. Lehendabiziko solairuan, aldiz, jubilatuen elkarte, liburutegia eta kultura zerbitzuaren bulegoak kokatuko dira.

Zinema, berriz, orain arte bezala, bigarren solairuan egingo dute. Hori bai, agertokia handitu egingo dute, eta an-

tzerkia eta bestelako ikuskizunak daudenerako, aktoreendako aldagelak egiteko asmoa dute. Solairu horretan bertan, erabilera anitzeko beste gela handi bat ere egingo dute. Hirugarren solairuari dagokionez, hainbat tailer egingo dituzte hantxe, herriko taldeendako, eta azkenengo solairuan, oraindik, behinik behin, ez dute ezer egingo. Aurrera begira, beharizanen arabera egokituko dute. Azkenik, esan behar da, igogailua ere egingo dutela.



Gizarte Etxeak izango dituen sei solairuen planoak ikusgai egongo dira



San Pedro, San Juan..

Kalebarrenen gaur hasiko dituzte jaiak, Uzarragan bihar, eta lar...

Gaur bertan hasiko dira Kalebarrengo jaiak. Asteburu guztirako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. San Juanak ere asteburu honetan ospatuko dituzte Uzarragan, eta herriko zuhaitza jasotzea ere egingo dute plazan San Juan bezperan, bihar. Datorren asteburuan, berriz, San Martzialak.

Ez dugu, ez, jai faltarik Antzuolan. Herriko jaiak ere ez dira urruti, baina ez dugu ordura arte itxaron beharrik izango jaiez gozatu ahal izateko.

Gaur iluntzean bertan hasiko dira Kalebarrengo jaiak. 21:00etan etxafuego jaurtiketarekin emango diete jaiei hasiera. Gaueko 22:30ean, berriz, erromeria izango da Zurrategiko kioskoan Eibar ko trikitilariekin.

Zapaturako, berriz, egitarau zabaloa prestatu dute. Goizeko 11:00etan marrazki lehiaketa egingo dute. Eguerdiko 12:00etan ginkana izango da Zurrategin. Eta, 12:30 aldera, soinu jotzaileekin kalejira egingo dute. Arratsaldean, ostera, 18:00etan umeendako ikuskizuna egongo da Zurrategin, Kakax, Kokox eta Kirriki pailazoekin. Ondoren, 19:00etan, buruhandiak. Ohiturari jarraituz, zuhaitza ere jasoko dute kalebarrendarrek 19:45 aldera. Kalebarrengo jaiak San Juan bezperarekin bat egiten dutenez, bi zuhaitz jasotze egingo dituzte zapatuan Antzuolan. Herriko zuhaitz jasotzea, plazan, 20:30ean egingo dute.

Urtero bezala, aurten ere, zapatuan, auzo afaria egingo dute gaueko 9etan. Eta afalostean, dantza egiteko aukerarik ere ez da faltatuko; izan ere, 22:30ean erromeria izango da Amalur taldearekin. Gauerdian, berriz, Kalebarrengo jaietan ohiko bihurtu den dantza



Zapatuan, 19:45ean, jasoko dute zuhaitza Zurrategin.

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI

Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

...hasi dira udako jaiak!

a larragan datorren asteburuan ospatuko dituzte San Martzialak

egingo dute, sagar dantza, hain zuzen ere. Eta bukatzeko, berriz, esan bezala San Juan bezperarekin bat egiten dute-nez Kalebarrengo jaiak, San Juan sua egingo dute.

Domekan ere egongo da zer ikusi eta zertaz gozatu. Goizeko hamarretan txistulariek kalejira egingo dute. 11:30ean, berriz, meza ospatuko dute, eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dute. Eguerdian, 12:30ean, Oinarin dantza taldeko dantzariak arituko dira, eta trikitilari gazteekin kalejira egingo dute.

DISKOTEKA BILAKATUKO DUTE ZURRATEGI

Bidusound diskoteka mugikorra ekarriko dute domekan, hilak 24, Zurrategira. Asto lasterketa bi urtean behin egiten dute, eta datorren urtera arte ez dute egingo. Horregatik, domeka arratsalderako Zurrategi diskoteka bihurtzea pentsatu dute. Musika berezia eskainiko digute Bidusoundekoek; adin guztietako jendeak izango du diskotekaz gozatzeko aukera, baina, bereziki, umeei zuzendutako emanaldia izango da.

SAN JUANAK UZARRAGAN

Uzarragan, berriz, San Juanak ospatzen dituzte. Ekainaren 24an da San Juan eguna, eta orduantxe egingo dituzte ospakizunak; bezperan ez dute ezer berezirik egiten. Domekan, hilak 24, eguerdi-



Datorren asteburuan ospatuko dituzte San Martzialak.

ko 12:00etan meza egingo dute, eta ondoren herriko dantzarien emanaldia egingo da, eta baita luntxa ere.

SAN MARTZIALAK DATORREN ASTEBURUAN

Lizarraga auzoan ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte San Martzialetarako. Zapatu, hilak 30, goizean, 11etan, eman-gio diete hasiera jaiak. Ordu horretan, etxafuego jaurtiketa egingo dute. 12etan meza ospatuko dute, eta ondoren, gazta eta ardoa dastatzeko aukera

ere izango da. Meza ostean, ordu bata aldean, herriko trikitilarien emanaldia izango da. Arratsaldeko 16:30ean, herri mailako plater tiraketa egingo da. 18:00etan, umeendako jolasak egingo dira; 19:00etan, txokolate jana, eta 20:00etan erromeria. 21:00etan herri afaria egingo dute, eta afalostean berriro ekingo diote erromeriarri. Gauerdian, 12:00etan, zaku lasterketa egingo dute.

Domekan ere egingo dute ospakizunik. Goizeko 11:00etan txistularien emanaldia; 11:30ean, herriko txirindulari igoera egingo dute, eta 12:30ean, meza edukiko dute. Eguerdi partean, herriko dantzariak arituko dira, eta ondoren erromeria izango da herriko trikitilariak. Arratsaldean ere izango da dantzarako aukerarik, eta 21:00ak aldera emango zaie amaiera aurtengo San Martzial jaiak.

■ ■ ■
Gaur, egubakoitz gauean bertan, hasiko dituzte Kalebarrengo jaiak
■ ■ ■

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean

ANTZUOLA **BERGARA**
609 157 131 609 150 164



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Lorez apaindutako balkoi ederrenei sariak

Bihar iluntzean, 20:30 aldera, egingo dute aurtengo lore lehiaketako sari banaketa. Bi sari banatuko dituzte: alde zaharreko balkoi ederrenari, eta alde berriko balkoi ederrenari. Lehendabiziko mailari dagokionez, Kalebarrengo Belen Berasategik jasoko ditu irabazleari dagozkion 15.000 pezetak. Alde berriko etheen mailan, berriz, Eguzki auzoko Kili Garcia izan da irabazlea.

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko ez da izena eman beharrik izaten, epaimahaikoek balkoi guztiak kontuan hartzen dituzte-eta. Egin behar den gauza bakarra, leiho eta balkoiak lorez dotore apaintzea da. Lehiaketa honekin, udaleko arduradunek duten helburua argia da: Antzuolako kaleen apaintetan herritarrek ere parte hartzea, euren etxeak zainduz.



Alde berriko balkoi irabazlea.

LIBURUTEGIAN ETA UDALETXEAN ORDUTEGI BERRIA


Datorren astelehenetik aurrera, ekainak 25etik aurrera, hain zuzen ere, ordutegi berria izango du udal liburutegiak. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egongo da irekita, ohiko ordutegian baino ordubete gutxiagoz. Uztailaren 13ra arte izango du ordutegi hori. Hilaren 16tik 20ra, berriz, goizez bakarrik irekiko dute, 11:00etatik 13:00etara. Uztailaren 23an itxiko dute liburutegia irailaren 3ra arte. Udaletxeko bulegoetako ordutegia ere aldatu dute; honakoa da udako ordutegia: goizeko 9:00etatik arratsaldeko 15:00etara. Arratsaldez, aldiz, itxita daude udaletxeko bulegoak.

JAIETARAKO PEGATINA AUKERATZEN

Urtero bezala, aurten ere antolatu du Idolaz euskara elkarteak jaietarako pegatina lehiaketa. Eguaztenean bukatu zen proposamenak aurkezteko epea, eta Idolazekoak pegatinarik aproposena aukeratzeko ari dira. Datorren hilaren 6an, Kontuolan bertan erakutsiko dizuegu zein den aurtengo pegatina irabazlea. Dakizuenez, euskara eta jaiak lotzen dituen leloa eramango du, urtero moduan. Iazkoak, esaterako, zera zioen: "Ointxe ein, bihar be izan dein".

PIRINIOETARA ARROLAREKIN

Uztailaren 7an eta 8an joango dira Pirinioetara. Honako egitaraua prestatu dute irteera horretarako: uztailaren 7an, goizean hartuko dute autobusa. Egun horretan bertan, Lac du Aubertetik La Glererako ibilbidea egingo dute. Domekan, berriz, La Gleretik Pic du Neovillera eta handik Lac du Aubertera joango dira. Izena emateko azken eguna datorren martitzena da, ekainak 26. Urtero egiten duten kanpaldia, berriz, uztailaren 26an eta 27an egingo dute, Urbasa aldean, seguraski. Azkenik, esan behar da, aurreko astebururako hondartzarako eta mendirako irteera bertan behera laga zutela, eta irailean egingo dutela.



Jai giroan antzuolarrak Aiherran

Domekan, hilak 17, Aiherrako frontoia inauguratu zutela-eta, autobusa antolatu zuten Antzuolatik, eta 25 lagun joan ziren, tartean udaleko hiru ordezkari. Inaugurazio ostean, dantzariak eta trikitilariak egon ziren, besteak beste.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buzinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

Batxilergo ikasketak bukatu berri ditu eta datorren ikasturtian Matematikak ikasteko asmua dauka. Bederatzi urte eman ditu igeri elkartian eta Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna izan da. Udan sorosle lanetan egongo da pizinetan.

Eneritz Muguruza

Zenbat kilometro egin ditzuzu Bergarako igerilekuan?
 Bueno..., horrek ezin die kontau.
Noiz ikasi ziñuan igeri egitten?
 Lau edo bost urterekin.
Igeriketa estilo bat?
Crawl, errezena dalako.
Pizina ala hondartza?
 Pizina; arai-eta ez jat gustatzen.
Bainujantzixa ala bikinixa?
 Bainujantzixa baiña segun zertarako.
Sorosle izatiaren gauzarik onena?
 Gauza asko ikasten direla.
Eta txarrena?
 Mutikuen atzetik ibili biharra.
Babes kremarik ematen dozu?
 Asko, oso zurixa naiz-eta.
Giro txarra dagoenian zer egitten dozue sorosliok?
 Gehixenetan irakurri.
Liburu bat gomendatzekotan?
Frankenstein, Mary Shelleyrena.
Urtaro bat?
 Udaberrixa.
Denbora librian zer egitten dozu?
 Lagunekin irten.
Gustuko film bat?
El ultimo mobicano.
Musika talde bat?
 Betagarri.
Zenbat ordu egitten dozu lo?
 Udan 10 bat. Asko gustatzen jat lo egittia.
Eta zerekin egitten dozu amets?


Gutxitan gogoratzen naiz ametsena.
Bildurra, zeri?
 Oso bildurtixa naiz, bitxuekin batez be.
Zerekin egitten dozu barre?
 Pelikula barregarrixekin.
Eta zerk jartzen zaittu triste?
 Eguraldi txarrak.
San Juan suak ikustera juango zara?
 Beste urte batzutan jua izan naiz.
Zure bertute eta defektu bat?
 Hori bestiek esan bihar... Oso azkar haserretzen naizela esaten dabe.
Periodikuan irakurtzen dozun lehenengo gauzia?
 Atzeko aldia.
Eta zer ez dozu irakurtzen?
 Kulturako albistiak.
Irratixa ala telebisiñua?
 Telebisiñua.
Programa bat?
Goenkale.
Ikusi ezin dozun beste bat?
 Telenobelak.
Nora egingo ziñuke bidaia bat?
 Australiara.
Zer eroango ziñuke uharte batera?
 Mobilla, janarixa eta lagun bat.
Zer moduz selektibidadia?
 Uste dot gaidittuko dotela.



POL-POL

Taberna

943 76 07 78




AGENTEA

Telefonoak: 943 76 23 30
 eta 943 76 41 54
 Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

OHARRA BEZEROEI:

Ramon Maria Liliko
 bulegoan arazo teknikoak
 ditugunez, aldi baterako
 bulegoa BELANBIDE KALEAN
 izango dugu. Ongi etorri, denok.



Jose Mari Etxaniz, preso ohia

«Kartzelan, bizitza erresistentzia da»

Domekan, goizeko hamarretan atera zen Jose Mari Etxaniz Topaseko kartzelatik. Senitarteko eta lagunek ez zuten momentu hori galdu nahi izan, eta hantxe egon ziren zain, Etxanizek kartzelako atea gurutzatu zuen arte. Emozioz betetako uneak izan ziren, eta halaxe gogoratzen du Jose Marik egin diogun elkarrizketan. Zapatuan, berriz, omenaldia egingo diote 19:00etan plazan.

Zer moduz lehendabiziko egun hauek?

E. Ondo, lasai; espero nuen baina askoz lasaiago nago. Ni, berez, nahiko urduria naiz, eta egoera honen aurrean, ez nuen uste hain lasai egongo nintzenik. Denboralditxo baterako alde egitea pentsatuta neukan, baina ikusiko dut. Egundua hauetara begiak zabalik nabil; batez ere, ikusi eta ikusi ari naiz.

G. Ongietorri beroa egin dizute.

E. Bai, gehiegizkoa, egia esan. Emozio eta tentsazio oso gogorak bizitzen dituzu. Espero duzu zerbait, baina ez hainbeste. Asko eskertzen da.

G. Orain dela sei bat urte bete zenituen zigorraren 3/4ak. Urte hauetan, zelan bizi izan duzu egoera hori?

E. Gertatzen dena da hori asumitu egiten duzula. Espetxe bakoitzaren araberakoa ere izaten da. Zigorraren 3/4ak beteta izateak ez du esan nahi askatuko zaituztenik; horrek baldintza jakin batzuk eskatzen ditu: portaera ona, esaterako. Ni isolatuta egon naiz; ez ditut baldintza horiek bete. Hori subjektiboa da. Objektiboa den bakarra denborarena da, 3/4ak bete dituzula, alegia; baina, gainerako guztia subjektiboa da. Orduan, horren aurrean zer egiten du-

zu? Bada, lasai hartu behar duzu.

G. Herritarrek behin eta berriz erakutsi dizute euren elkartasuna, eta plataforma bat ere sortu zuten. Horrek lagunduko zizun, ezta?

E. Bai; beharizan asko daukazu: materialak, sentimentalak. Eta egoera horretan elkartasun hori, berotasun hori sentitzea oso garrantzitsua da. Kartzelan, askotan, hainbat preso sozialen egoera gogorak ikusten dituzu: familia desegituratuak dituztenak, eta denborarekin kanpoaldearekin inolako harremanik ez daukatela ikusten duzu; preso horiek, psikologikoki eta aspektu guztietan zeharo apurtzen dira.

Egoera oso gogorak pasatu ditugu,

batez ere, Puerton. Presio izugarria genuen. Han, kartzelan, isolamenduan, bakarrik zaude, eta zeure indarra besterik ez duzu. Baina, bakarrik egonda ere, badakizu ez zaudela bakarrik.

G. Azken urteetan gizarteak presoen eskubideen aldeko jarrera erakutsi du. Baina, presoen egoera aldatu da?

E. Nik uste dut okerrera egin duela egoerak. Adibidez, garai batean, nahiz eta sakabanatuta egon, talde handiagotan egoten ginen. Gaur egun, lan errepresibo sistematikoagoa egiten dute. Egiten duten presioa landuagoa da, nolabait esateko, zientifikoagoa. Esate baterako, geure arteko tirabirak bilatzen dituzte. Gero, telefonoak, gutunak eta bisitak interbenituta, etengabeko modulo eta ziega aldatetarako, sekulako zaratekin esnatzea...; era horretako sistematik asko lantzen dituzte.

G. Horrenbeste urtetan kartzelan hondoratu barik mantentzeko, zeri heldu diozu?

E. Hasteko eta behin, badakizu zertan zauden, eta zergatik. Behin hori onartuta, horrek laguntzen dizu. Hori alde batetik; eta gero, bada, han barruan bizitza erresistentzia bezala planteatzen duzu, eta sistema apurtzen saiatu behar duzu. Egoera gogorrek eurek

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1. Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

ETXE BERRIA


ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



ere, gainera, kasu batzuetan, indarra ematen dizute. Egoera pixka bat hobetzen denean, ondo aurre egiten diozu. Dena dela, kaleko elkartasunak ere asko laguntzen dizu, noski.

G. Kartzelaren helburua bergizarteratzea dela diote. Zer deritzozu?

E. Hori ez du inortxok ere sinesten, ezta eurek ere. Kartzelak pertsonak apurtzeko eginda daude; bestela, beste era batera planteatuta egongo lirateke.

G. Zertan edo zelan aldatu du kartzelak Jose Mari Etxaniz?

E. Nik uste dut, orokorrean, onera aldatu naizela. Kartzelak humanoagoa egiten zaitu. Esate baterako, faltsukeriak usaindu egiten dituzu; itsu-itsuan ez duzu ezer sinesten, sinetsi aurretik ikusi egin behar duzu. Kartzelan errealitatea gordinagoa da. Eta egoera horretan kalean baloratzen ez direnak baloratzen dituzu. Are gehiago, gaizki ikusita daudenak ere baloratzen dituzu kasu batzuetan. Esate baterako, agresibitatea; beharra daukazunean, erabili beharra tokatzen zaizulako. Kontua da gauzak beste ikuspuntu batetik ulertzen dituzula. Bestalde, nik uste dut gauza guztiak erlatibizatzen ere ikasi dudala; gauzak lasaitasun handiagoz analizatzen ditut, gaur egun.

G. Aurrera begira, zer asmo dituzu?

E. Aurrera, momentuz, ez dut begiratzen. Gaur zuekin ordua jarrita neukan, eta hemen nago. Baina, arratsaldean zer egingo dudan ez dakit. Beraz, ez nago etorkizunari buruz berba egiteko moduan.<

«Kartzelak pertsonak suntsitzeko eginda daude, eta ez bergizarteratzeko»

«Presoen egoerak okerrera egin du; orain, lan errepresiboa sistematikoagoa da»

Agirrebeña

JATEETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ARREGI

**Eraikuntza
materialak**

Bitlegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93



BANKINTER

%3,5etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

*Irekiera
komisioa:
%1.
35 urte
bitarteraino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

AGOITZ
tapiz denda

Leizariako San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

Ariznoak emaitza bikainak lortu zituen Gipuzkoako txapelketan

Ariznoa gimnasia erritmikoko taldeak oso emaitza onak lortu zituen Ibarra jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Taldeka, alebinetan zein infantiletan, txapel-dunak izan genituen bergararrak eta banaka ere primeran aritu ziren.

Sarai Gallegok, Amaia Markiegik, Peregrina Nsuek, Sarai Ruizek eta Eider Carrascok osatzen duten taldea alebin mailan nagusitu zen. Sarai Gallegok lehen postua lortu zuen esku libreak eta sokako ariketetan.

Infantil mailan ere talde bergararrak irabazi zuen. Irati Arteaga, Virginia Odriozola, Maialen Legorburu, Izargi Vega eta Naiara Canterok osatu zuten tal-



Ariznoako gimnastek kurtso bukaerako erakustaldia eskainiko dute gaur.

dea. Banakako txapelketan, Irati Arteagak bigarren postua eskuratu zuen (soka eta aroa) eta Virginia Odriozola 5. postuan sailkatu zen.

Kadete mailan, azkenik, banaka Maialen Toledo bigarrena izan zen, Uxue

Arregi hirugarrena sailkatu zen eta Iratitz Gastiain 12.a izan genuen. Hirurak uztai eta mazoekin aritu ziren. Sonia Corredera Ariznoako entrenatzaile eibartarraren arabera, «banekien hor aurrean egoteko aukerak geni-

tuela, baina ez nuen uste horren emaitza onak lortuko genituenik. Gimnastei ezin zaie gehiago eskatu».

Gaur, egubakoitza, Ariznoak kurtso bukaerako erakustaldia eskainiko du, Kiroldegian, 19:00etan.

ESPAINIAKO TXAPELKETAN

Bestalde, Ipurua taldean ari diren Aintzane Narvaez eta Leire Lasa, taldekako Espainiako txapelketan, Euskadirekin, 3. sailkatu ziren joan den astebukaeran Zaragozan. Ane Miren Fernandez Espainiako banakako txapelketara joango da Valentziara datorren ekainaren 30ean, eta hurrengo astebukaeran Aintzane Lasa Valladoliden izango da, Espainiako taldekako txapelketan.

Kepa Varela San Antonion garaile

Lokatza taldeko Kepa Varela txirrindulariak zapatu arratsaldean jokaturako I. Honorio Agirregabiria Memoriala irabazi zuen. Lasterketa 2. urteko kadeteen Gipuzkoako txapelketa genuen eta Varela Gonzalez elgoibartarrari nagusitu zitzaion helmugan, sprintean. Bi txirrindulariak ihes eginda heldu ziren helmugara. Irteeran 65 txirrindulari izan ziren. Bestalde, astelehen arratsaldean gazte mailako Gipuzkoako Itzulia amaituko da Bergaran.



REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12

Bergararrak Zarauzko triatloian

Bergarako Antxintxika triatloi taldeko kideek Zarauzko triatloian parte hartu zuten zapatuan. Julen Gari-tano eta Aitor Larrea izan genituen onenak, 29. postuan eta 30.ean hurrenez

hurren. Biek ere 4 ordu eta 37 minutu behar izan zuten ibilbidea betetzeko: 2,8 km. igerian, 82 bizikletan eta 20 km. korrika. Aitor Remente-ria 64.a izan zen (4:48), Aritz Kortabarria 76.a (4:52),

Iker Larrea 97.a (4:58), Jose-ba Zuzaeta 142.a iritsi zen (5:12) eta Esteban Lazkano 169. postuan sailkatu zen, 5 ordu eta 21 minutuko denborarekin. 210 partaide helmugaratu ziren.

Bergara KEren batzarra

Bergara KEren batzar orokorra izango da gaur, egubakoitza, Kultura Etxean, 19:30ean. Bazkide guztiei bertara joateko deia egiten zaie.

ANGEL RIBERA / Atleta

«100 metrotan 11,20 egitea da nire asmoa»

Angel Ribera bergararra (19 urte) 3. postuan sailkatu zen astebukaeran Durangon jokaturako Euskadiko atletismo txapelketan, 100 metroko proban, junior mailan. Astebukaeran Gipuzkoako txapelketa izango du Anotan.

G. Brontzeko domina lortzeaz gain, marka ona egin zenuen Durangon...

E. Bai, 11 segundo eta 37 ehunen egin nituen 100 metroko proban eta pozik nago lortutakoarekin. Marka ona da, eta Espainiako txapelketan parte hartzeko eskatzen duten markatik (11,20) gero eta hurbilago nago. Ea astebukaeran

Donostian minimoa egiten du-dan...

G. Distantzia motzetan espezialista zaitugu.

E. 100 eta 200 metroko probak egiten ditut, baina Durangon muskulu-uzkurdura bat izan nuen eta ez nuen 200ekoan parte hartzerik izan. 200 metrotan 23.43ko marka daukat.


G. Zein distantzia duzu gustukoen?

E. Beharbada 100 metroan hobe ibil-

tzen naiz. Hala ere, irteeran adibidez asko hobetu beharra daukat, erabakigarria delako abidurako probetan.

G. Zelan hasi zinen atletismoan?

E. Lehen futboleko jokatzeko nuen, baina ingurukoek animatuta atletismoarekin probatzea erabaki nuen. Irailtik ari naiz Arrasate Atletiko taldean eta oso gustura nabil. Aste- an behin Arrasatera joaten naiz entrenatzera, Iturri- perera. Fernando Zufiria da nire entrenatzailea. Bestela Bergaran entrenatzen dut, fondo- a eta serieak landuz.



Bergara Hiriko finalak asteartean

Martitzenean pilota txapelketako finalak jokatu dira, 19:30ean pilotalekuan: promes mailan Zabala-Oteiza eta Errea-Jauregi eta seniorretan Mikel-Casado eta Larraia-Navarro.

Labegaraietako txapelketa

Datorren denboral- diko txapelketarako ize- na ematea irailaren 11ra arte izango da zabalik. Taldeko 24.000 pezeta ordaindu behar dira.

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

**INGELES A
FRANTSESA
ALEMANA**

Uztailaren 2tik 20ra.

- GOIZEZ EDO ARRATSALDEZ.
- MAILA GUZTIAK
- ADIN GUZTIAK
- EGUNERO HIRU EDO LAU ORDU.


**STONE HOUSE
HIZKUNTZAK**

943 76 06 87. Ibargarai, 18.

MATRIKULA ZABALIK EKAINAREN 29ra ARTE

IPINTZAKO

futbol txapelketa



Partaidetza handia eta kiroltasuna nagusi

Aurtengo ekitaldian sekula baino talde gehiago ari dira lehian Ipintzako txapelketan. Antolatzaileek orain arte talde guztiek erakutsitako kiroltasuna azpimarratu dute, egon diren lesionatuak zorte txarraren ondorio izan direlako eta ez delako inolako arazorik egon epaileekin. Faboritoei dagokienez, nagusien mailan Mongatxurak taldeak jokaturako lau partiduetan irabazi ditu, erraztasun handiz gainera. Multzo bakoitzeko bi lehenak sailkatu dira final laurdenetarako. Beteranoen mailan, Angiozar dugu talderik indartsuena orain arte. Azken jardunaldian lau gol egin zizkion Guipuzcoana taldeari. Nesken artean, datorren egunean alebin mailako finala jokatu da. Seniorretan, berriz, Ogizun eta Arloteak lidergoan dira berdindurik eta kadeteetan Fashion Fashion taldeak 3 puntuko aldea ateratzen dio Elgetari.

azken emaitzak

NAGUSIAK

Killer's-Altos Pornos	1-2
Tojhu-Bildurbarek	1-2
Arloteak-Angiozar	0-2
Mongatxurak-Game over	5-1
Mongitxarrak-Gore	2-2
Down-Drink Team	3-0
Txokokuak-Los Pepinos	4-0
Torrekuua-La Juve	4-2
Osintxu-Fo Fo Fo	4-2

BETERANOAK

Bar Canalejas-Arloteak	3-1
A Ze Flaxa-Bildurbarek	3-4
Guipuzcoana-Angiozar	0-4
Ezinleike-Amilotx	0-1

NESKAK

San Martin-Soraluze	0-25
Lotsagabeak-Arloteak	0-24
Arloteak-Pentol's Team	4-2
Lai Lai Lai-Arranua	8-0

partiduetak

NAGUSIAK

Astelehena 25
19:15: A Ze Flaxa Guipuzcoana-Gore
20:30: Angiozar-Matxakategi

Eguaztena 27

19:15: Fo Fo Fo-Getokoak
20:30: Game Over-Mongitxarrak

BETERANOAK

Eguena 28
19:45: A Ze Flaxa-Amilotx
19:45: Guipuzcoana-Arloteak
20:45: Angiozar-Bildurbarek Opel Lam
20:45: Ezinleike-Bar Canalejas

NESKAK

Martitzena 26
19:00: Mariaren Lagundia-Txotx eta Fashion Fashion-Jo ta ke
20:00: Elgeta-Eibartarrak eta Arloteak-Arranua
21:00: Ogizun-Potzu ta zapaburuak

Eguena 28
18:00: Alebinak. 3. eta 4. postua
18:45: Alebinak. Finala

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel Lam	9	4	11	3
2. Altos Pornos	9	4	6	3
3. Tojhu	6	4	7	4
4. Torrekuua	6	4	7	10
5. Killer's	4	4	7	10
6. La Juve	1	4	8	16

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	9	3	14	2
2. Txokokuak	7	4	11	6
3. Fo Fo Fo	4	3	13	7
4. Los Pepinos	3	3	2	13
5. Getokuak	0	3	1	13

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	12	4	14	2
2. A Ze Flaxa	6	3	10	3
3. Gore	4	3	6	6
4. Mongitxarrak	1	3	2	7
5. Game over	0	3	2	16

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	7	3	11	2
2. Arloteak	6	3	8	2
3. Down	5	4	5	7
4. Matxakategi	4	3	6	4
5. Drink Team	0	3	1	16

Beteranoak

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	12	4	28	7
2. Bildurbarek Opel Lam	10	4	25	8
3. A Ze Flaxa	6	4	15	15
4. Guipuzcoana	4	4	13	15
5. Bar Canalejas	4	4	11	20
6. Amilotx	4	4	9	28
7. Ezinleike	3	4	10	14
8. Arloteak	2	4	12	16

Neskek, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Ogizun	9	3	26	2
2. Arloteak	9	3	16	2
3. Lai Lai Lai	7	4	18	7
4. Pentol's Team	6	4	12	11
5. Potzu ta zapaburuak	4	3	10	4
6. Arranua	0	3	0	25
7. Ou Pitxu Ou	0	4	0	31

Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Fashion Fashion	10	4	18	5
2. Elgeta	7	3	8	4
3. Eibartarrak	6	2	12	4
4. Txotx	3	3	9	11
5. Jo ta ke	0	3	1	10
6. Mariaren Lagundia	0	3	3	18

Neskek, alebinak

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	12	4	53	0
2. Soraluze	6	3	33	12
3. Lotsagabeak	6	3	10	25
4. San Martin	0	3	1	46



GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA

Inglesina.



Banatzaile ofiziala

Bergarako Pazkoetako BIDEOA salgai

GOITBko XELEBERRI saioko
bideoa salgai 1.000 pezetan!

Eskura ezazu Berrigarán!

Telefonoa:

943 76 03 97.

Irizar jauregia:

Barrenkalea 33,
Bergara.

Goitb
Goiena Telebista





bonofotoa

Bergarako zein bi plazatan daude farola hauek?

galde debalde

1. Ondoko zein esanahirekin lotuko zenuke 'bidebueltia' hitza?


- A- Bideko bihurgunea
- B- Kaminoko bihurgunea
- C- Bidegurutzea

2. Nork emango du meza domekan Elosuko San Andres de Iraun elizan?

- A- Xabier Azkoitiak
- B- Uriarte gotzainak
- C- Xabier Azpeitiak

3. Nora joan ziren Pertxakoak joan zen asteburuan Or-Konponen ohiturari jarraituz?

- A- Pol-Polera
- B- Pirinioetara
- C- Errioxara



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Inazia Garai**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Inaziari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Agirrebeña etxea**
Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Heineken
garagardo lata (33 cl.)
85 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Izozkiaren historia antzerki bidez, *El Frigo show* umeendako antzezlanarekin

Miguel Pino Produziorak taldeak izozkiaren historia ekarriko du bihar, zapatua, 19:00etan Fraiskozuri plazara. 'El Frigo show' du izena antzezlanak, eta umei zuzenduta dago.

Miguel Pino eta Tina dantzariak izozkiaren historia goxoa kontatuko digute. Mesopotamia zaharreko garaitik hasi eta gaur egunera arteko historiaren berri emango dute.

Orain, uda partean, batez ere, jaten dugun izozkiaren inguruko hainbat gauza berri ikasteko aukera eskainiko dute 'Frigo show' lanean. Marco Polo bera, eta hozkailuaren asmatzailea



Panpinen laguntzarekin, izozki eta pirata istorioak kontatuko dituzte.

ere tartean izango dira antzezlan freskagarri honetan.

SARIAK JAKINTZAREN ERRULETAREKIN

Historia kontatu ostean, jolasteko aukera ere izango

da Malagako antzerki taldearekin. Jakintzaren erruleta bat ere izango da. Horren arabera, Miguel Pino eta Tina Bailarinak hainbat galdera luzatuko dizkiete umei. Izozkiaren historia adi en-

tzunez gero, galderak erraz erantzungo dituzte, eta sari gisa kamisetak, biserak, boligrafoak, puzgarriak eta beste hainbat gauza eskuratzeko aukera izango dute.

PIRATAK ETA PRINTZESAK

Ikuskizunarekin amaitzeko, pirata, printzesa eta itsasontzien istorioak izango dira nagusi. Eta herensugeren bat ere izango da tartean, akaso. Horren guztiaren ostean, opari gehiago banatuko dituzte antzezlaneko ki-deek. Eta, agian, beste sorpresaren bat ere izango da, gutzia borobiltzeko.


Izozkiaren historia eta piratak nagusi izango dira, beraz, bihar, zapatua, 19:00etan Fraiskozuri plazan.

Mikel Ibarzabalek egindako planetak Zientziaren Kutxagunean

Mikel Ibarzabalek Miramongo Teknologi Parkeko Zientziaren Kutxagunerako planetak egin ditu. Bederatzi planetok eskalan egin ditu: Jupiterrek, handienak, 150 zentimetroko diametroa du, eta Merkuriok, txikienak, 2,4koa. Horixe da, Mikel Ibarzabal harritu duen gauzetako bat, tamaina aldetik horren ezberdinak izatea planetak. Buztina erabili du planetak egiteko. Ondo-

ren, beira-zuntzez estali ditu, eta azkenik pintatu. Pintatzeko, planetei buruzko liburuetan oinarritu da.

Bederatzi planetak Miramongo Zientziaren Kutxagunean egongo dira ikusgai aurrerantzean. Ibarzabalek, martitzenerako hantxe utzi behar zituen. Bestalde, Eguzki sistema osatzen duten beste elementu batzuekin batera egongo dira planetak.




Mikel Ibarzabal Urretxuko bere tailerlean planetak margotzen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



Arrantzale beterranoak Osintxun

Orain dela bi aste gaztetxoan arrantzaz txapelketako argazkia ekarri genuen orrialde honetara eta oraingoan nagusien erretratuak dakarkizuegu.

Argazkia duela 20 bat urtekoa da, 1980ko hamarkadaren hasierakoa. Sasoi hartan Oilagorra elkarteak urtero arrantza

lehiaketa antolatzen zuen udaberri partean, eta adin guztietako arrantzaleak izaten ziren lehian. Oilagorakoek amuarrainak botatzen zituzten Osintxuko errekan edo San Juanen eta han izaten ziren arrantzaleak nor baino nor. Azkenean, piezarik handiena eta pieza gehien harrapatzen zituztenak saritzen zituzten, maila ezberdinetan. Goiko argazkia

Osintxuko errekan ondoan aterata dago, eta hor dira arrantzaleak, eskuratutako trofeoekin, katiuskak jantzita eta arrantzarako kanaberak alboan dituztela.

Hona hemen argazkiko lagunaren izenak ezkerretik eskumara: Matias Agirrezabal, Boni Lazkano, Jose Agirrezabal, Felipe De Benito eta Basilio Unamuno.



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.

Tf. / faxa 943 76 59 53.



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



BILTOKI

ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak	Barrenkalea, 6	Tel.: 943 76 25 96
Opariak	Barrenkalea, 12	Tel.: 943 76 04 72
Dekorazioa	San Martin plaza	Tel.: 943 76 43 51
Sukaldeak eta bainuak	San Pedro plaza	Tel.: 943 76 34 00

1955. urtean sortua 46 urte herriaren zerbitzura

Irala 3
Telefona:
943 76 48 26



IRRINTZI
k a f e t e g i a

Udako Ikastaroak / Barnetegiak



Lotsarik gabe!

HABEren dirulaguntzaz.

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZEA eta EGA.

Erritmoak

Egunean 4 edo 5 ordu, goizez.

16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 08:30-12:30 • Arratsaldez: 14:30-18:30

Ikastaroaren iraupena

Ekainaren 26tik uztailaren 20ra.

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 11tik 22ra.

Barnetegia

Uztailaren 1etik 15era ZERAINen.



UDAL
EUSKALTEGIAK

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

Bidekurutzeta, 3

20570 Bergara

Tfno.: 943 76 40 33. Faxa: 943 76 90 41

Ikasi@ikasi.com

Inem-ek homologatutako zentroa



IKASI

UDA 2001

IKASKETA LAGUNTZAK

Ikaslearen jarraipena eta ikasketa zuzendua
Klaseak banaka edo talde txikietan

- Matematika
- Euskara
- Literatura
- Fisika
- Latina
- Gizartea
- Kimika
- Lengoaia
- Kontabilitatea
- Ingelesa
- Finantza matematika
- Estatistika

HIZKUNTZAK

- Ingelesa
- Alemana
- Frantsesa

GABINETE

PSIKOPEDAGOGIKOA

- Ikasketa tekniketarako buruzko ikastaroa
- Txosten psikopedagogikoa egitea

KURTSOAK

- Informatikaren hastapena
- Mekanografia ordenagailuz
- Ingelesa
- Frantsesa

Adi gazteok

- Alemana
- Ikasketa teknikak
- Enplegu bilaketako teknikak

LANGAIren zentro laguntzailea

P A S C U A L

TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate,4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.



UNIttec.



Aurrerantzean baita Bergaran ere

Ibargarai, 5.

Tel. 943 76 97 07 - 08 - 09

LASTER ZABALIK

Zatoz, aldatu zure puntuak eta eraman ezazu momentuan bertan sakeleko telefono berria.

Zure aholkularia Telekomunikazioeta

Banatzaile ofiziala

Telefonica

MoviStar